

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Susana Ugarte Ugarte

*Oñati,
Gipuzkoa
(1913-2011)*

Aurkibidea



Biografia



Oñatiko Kristobalena kale-baserrian jaio zen, Auzotxo esaten zioten kaleko auzune batean, gaur egungo Marzelino Zelaia kalean. Aita bertakoa zen eta ama Arantzazu auzoko Arrikurtz baserrikoa. Sei anai-arrebatatik bosgarrena izan zen Susana. Ospitaleko eskolan ikasi zuen, zazpi urtetik hamahiru urtera arte. Eskolan zebilela, bostetan irten eta zortziak arte umezain lan egiten zuen erreal baten truke. Jolas gutxiko umea izan zen. Hamahiru urterekin Garai lantegian hasi zen lanean. Lau urte geroago neskame joan zen Tolosara, bertako alkate zen Antonio Labaien etxera. Gerra hasi zenean etxera itzuli eta Garainean eman zituen beste zazpi urte. Harrezkero zerbitzari edota neskame lanetan jardun zuen Baionan. Azken ugazabak hil zirenean, eta harik eta Oñatiko Zaharren Egoitzara etorri zen arte, haien senideentzako (Parisen bizi zirenak), Baionako etxea zaindu zuen urteetan. Istripu bat izan berri zuen elkarrizketa egin zitzaionean. Berari elkarrizketa bat egin zitzaion, eta "Mahai-ingurua Oñatin 1" grabazioan ere parte hartu zuen.

Zintak

ONA-129

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-08-12
- **Iraupena:** 79 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com